

## **TXOSTENA, 2019KO EKITALDIRAKO PREMIAZKO AURREKONTU-NEURRIEN INGURUKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

---

Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta egin da txosten hau, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena erabiliz.

4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatzen dena eta generoaren araberako inpaktuaren aurretiko ebaluazioa egiteko nahiz emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak deuseztatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko gidalerroetan xedatzen dena behar bezala ezartzen dela egiaztatzea da txosten honen xedea (Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartu ziren gidalerro horiek), bai eta hobekuntza-proposamenak egitea ere.

Txostenaren xede den legearen aurreproiektuak zenbait xedapen osagarri ezarri nahi dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko 2018rako aurrekontu orokorrak 2019ko ekitaldian luzatzeko araubideari eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2018rako aurrekontu orokorrak onesten dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legeari, zeinaren indarraldia 2019ko ekitaldira hedatu den.

Hortaz, xedapen arautzaile orokor batez ari gara, eta, lehenengo gidalerroaren 2.1. zenbakian ezarritakoarekin bat eginez, generoaren araberako inpaktua ebaluatu behar zaio. Horri begira, generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena igorri du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo gidalerroaren 3. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**Genero-inpaktuari** buruz igorri den **txostenean**, legearen aurreproiektuaren azalpen orokorra egiten da, eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko berariazko xederik ez dagoen arren, araua osatzen duten neurriek, sektore publikoko langileen ordainsarien igoerak eta hartzeko pasiboen eguneraketak, hezkuntza-itunen modulu-tako osagaien eguneraketak eta EHU-rako aurrekontu-horniduraren finkapenak,

diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren igoerak eta abenduaren 22ko 5/2017 Legearen seigarren xedapen gehigarriaren indargabetzeak EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzen hobekuntzan eragin zuzena dutela adierazten du txostenak.

Generoaren araberako inpaktuaren aurretiko ebaluazioari dagokionez, adierazi beharra dago oso begi onez ikusten dela ezarritako atal eta galdetegi guztiak betetzeko egin den ahalegina; gainera, arauan premiazkotzat jotzen diren aurrekontu-neurriekin zerikusia daukaten eremuen gaineko azterketa osoa egin da, errealitateari egokitzen zaiona. Hala, inpaktuari buruzko txostenak sektore publikoaren, kargu publikoen eta funtzionarioen, hezkuntza-sektorearen, pobreziaren, gizarteratzearen eta erantzunkidetasunaren nahiz denbora-erabileren inguruko informazioa ematen du.

Zentzu horretan, inpaktuari buruzko txostenean adierazten denez, legearen aurreproiektuan jasotzen diren neurriek desberdinkeriak murrizten lagunduko dutela aurreikusten da, aurreproiektuak berak erregulatzen dituen eremuei dagokienez.

Halaber, txostenean adierazten denaren arabera, emakumeei eta gizonei egozten zaizkien ezaugarrien inguruko arau sozialak edo balioak gainditzen edo aldatzen lagunduko du EHUren aurrekontu-horniduraren eta itunpeko hezkuntza-zentzoei eusteko modulu ekonomikoaren igoerak.

Modu berean, oso positibo baloratzen dugu inpaktuari buruzko txostenean jasotzen den neurria, lege-proiektuaren edukitik harago baitoa. Bada, Ogasun eta Ekonomia Sailaren Berdintasunerako Unitateak aurreikusi du neurri hori, eta EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana (2018-2020), Lanbide Heziketarako IV. Plana, Unibertsitaterako III. Plana, Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021) eta sailen berdintasunerako planak ebaluatzeko eta horien jarraipena egiteko jardunbideei buruzkoa da.

Hala ere, eta genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzeko bidean aurrera egite aldera, bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 3.4. artikulua betetzeari begira, bai, aldi berean, gobernuak berdintasunerako politikekin duen konpromisoa

ikusgarri egiteari begira, EAeko 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen proiektuaren genero-inpaktuari buruzko txostenean proposatzen diren neurri batzuk gogoraraziko ditugu, Ogasun eta Ekonomia Sailak 2018ko urriaren 19an egindakoak horiek:

- Genero-ikuspegia duten diagnostikoak eta ikerketak edukitzea, kolektibo hartzailea zein gaur egungo genero-arrakalak sakon ezagutzeko eta, ondorioz, neurri zuzentzaileak hartzeko xedez.

- Plangintza hobetzea eta plangintza hori aurrekontu-memoretan islatzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak deuseztatzeko eta horien berdintasuna sustatzeko xede orokorrera zuzenduta egon daitezen.

- Langileak berdintasunean trebatzea, kargu publikoetan daudenak barne hartuta.

- Politika publikoak hobetzea, genero-ikuspegia izan dezaten.

- (...)

Azkenik, legearen aurreproiektua eta generoaren arabera inpaktuari buruzko txostena idaztean hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzeko egin den ahalegina baloratu behar da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten baitu horrek.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 21a